

{ datorrena } Iñaki Soto

Kolpismoa ardatz izango duen aroaren aurrean gaude

Brasilgo hauteskundeak emaitzak bereziki kezkarriak dira demokrazia, askatasuna, berdintasuna eta justizia helburu duten mundu osoko pertsona eta mugimendu politikoentzat. Ez soilik emaitza, ordea, baita emaitza hori erdiesteko Bolsonaro eta bere babesleek izan duten jokabide zitala ere.

Gainontzeko agintari autoritarioen gailentzeekin konparatuz gero, Brasilgo prozesu politikoaren ezaugarriak partikularrak eta oso kezkarriak dira. Han kolpismo tradizionalaren formula berritu egin da, sofistikatu egin da. Epe luzeagokoa da, pazientzia handikoa.

Bolsonaroren faxismoa osoa da, ez du lauki bakar bat ere zurian utzi: klasista da, misoginoa, homofobia, arrazista, biolentoa... konplexurik gabea da. Zentzu horretan, egiatzkoa da. Gezurra lotsarik gabe erabili du, baina, aldiz, beren ustez esaten dituen «egiengatik» eman diote botoa askok. Politikan egiaren eta gezurraren auzia maila epistemologikoa ari da hartzen, neurosoziologiarekin uztartuta, gainera. Ondo dago George Lakoff aipatzea, baina bere teorien aplikazioak sistematikoagoa eta neurgarriagoa behar du izan.

Beste alde batetik, Brasilgo kolpismoa konstituzionala da, instituzionala, legala. Hauteskunde bidez eman da, ez era garbian baina bai «demokratikoki», zentzu oso ahul batean bada ere. «XXI. mendeko sozialismoa» delakoak iraultza instituzionalizatu eta konstituzionalizatu zuen bezalaxe. Horren aurreko erreakzio gisa antolatu da Brasilgo kolpea, hain zuzen ere. Hari horretatik tiraka, arazoa demokrazia bada eta bertan konponbiderik ez badago, ezkerrentzat autoritarismoa tentazioa da, eskema horretan jotzen badakietara. Balantze historikoa eginez gero, akats larria litzateke.

Bolsonarok dirua du atzean, jakina; dirutza, gainera. Oligarkia klanikoaren babesak izan du, Estatuko botereen eta indar tradizionalen babesak, baita Estatua atzemateaz

bizi diren sektore zahar-berrien babesak ere. Ez dezagun ahaztu, ordea, Walden Bellok Naomi Klein-en *shock*-aren teoriari egindako kritika: Txileko kolpea ez zen soilik oligarkia izan, babes-herritarra zuten.

Estatuko botereek Bolsonaroaren arerioak bidetik kendu zituzten, lehenik Dilma Rousseff *impeachment* delakoa-ren bitartez kargutik kenduz, eta, ondoren, Lula kartzelara sartuz eta bere hautagaitza ezinduz. Mundu osoko ezkerrek Rousseffen aurkako kolpeari ez zion behar besteko garrantzirik eman eta gu, baita gure egunkaria ere, horren adibide da. Internazionalismoa hankamotz dabil.

ALTERNATIBA NEKOSOA DA, BAINA SINPLEKERIA ANTZUA DA

Autoritarismoa eta demokrazia parez pare jarri dira gure garaian, aspaldian ez zeukaten aurkakotasun maila batekin. Biak gaur egungo politikaren ardatz nagusiak direla esan daiteke. Ez bakarrak, zalantzarik gabe, bai oso

Autoritarismoaren mapa egin behar dugu, aztarnak eta pautak bilatu, antzekotasunak eta partikularitasunak zehaztu. Horrez gain, baina, alternatibak ere nabarmendu behar ditugu

garrantzitsuak, ordea. Adi, erredukzionismoa beti da arriskutsua politikan. Kategoriak erabilgarriak dira gauzak ulertzeko baliogarriak direlako. Baina kategoriak izendatzeko erabiltzen diren hitz horiek baino askoz gehiago dira, askoz ere konplexuagoak dira.

Beraz, nire ustez Brasilgo kasu paradigmatikoa bada ere, ez da lagin nahikoa. Autoritarismoaren mapa egin behar dugu, aztarnak eta pautak bilatu, antzekotasunak eta partikularitasunak zehaztu. Fokua hor jartzeaz gain, alternatibak ere bilatu eta nabarmendu behar ditugu, Rebecca Solniten itxaropenari helduz. •